

2024ko MEMORIA

LABURPENA



Munduko Medikuek nazioarteko elkarte humanitario eta boluntarioa da. Guztiok osasunerako dugun eskubidea gauzatu dadin lan egiten du, eta bereziki jarduten du hala izan dadin pobrezia egoeran, genero desberdintasunean eta gizarte bazterketa egoeran bizi direnen edo giza krisien biktima direnen artean. Eta horixe lortu nahi du, osasun arretaren, salaketaren, testigantzaren eta ekintza politiko eta sozialaren bidez.

1980 Médecins du Monde Frantzia sortu zen.

1990 Médicos del Mundo spainia eratu zen.

1995 Munduko Medikuek Euskadi sortu zen.

Munduko Medikuen Nazioarteko Sareak 17 ordezkari ditu guztira, Alemanian, Argentinan, Belgikan, Kanadan, Espainian, Estatu Batuetan, Frantzian, Grezian, Italian, Japonian, Luxenburgon, Holandan, Portugalen, Erresuma Batuan, Suedian, Suitzan eta Turkian. Helburu komun bat dute horiek guztiek: talde ahulenei osasun arreta ematea eta bidegabekeriaren kausak eta horien erantzuleak salatzea.

Garapenerako lankidetzaren eremuan lan egiten dugu, epe luzeko proiektuen bitartez, eta herrialdeko bertako osasun egiturari txertatzen ditugu proiektu horiek. **Ekintza Humanitarioari** dagokionez, gerrak, gaixotasunek edo hondamendi naturalek kaltetutako lekuetan bertan aritzen gara, premiaz.

Munduko Medikuek elkartearen egoitzan bertako **kolektibo zaugarriekin** ere jarduten da, bereziki osasun sistema publikoa erabiltzeko zailtasunak dituztenekin. Boluntariotzaren konpromisoaren bidez

eta beste gizarte mugimenduekin batera, kontzientzia kritikoak sortzeko prozesuak bultzatzen ditugu, gizarte aldaketarekin konprometitua den herritar multzo globalari begira.

GARDENTASUNA

Bazkideek berek zuzendutako elkarte gara. Bazkide horiek borondatez parte hartzen dute, ekonomikoki elkarteari eusten laguntzen diote eta erakundearen ekintzei buruzko erabaki estrategikoak hartzen dituzte.

ARRETA ETA SALAKETA

Eskubideak urratu zaizkien pertsonei arreta emateaz gain, bidegabekeriak eragiten dituzten arrazoiak salatzen ditugu, eta gobernuekiko presio ekintzak sustatzen ditugu, egoera horiek zuzentzeko.



NOR GARA

MUNDUKO MEDIKUAK - NOR GARA

66

bazkide
(39 emakume
eta 27 gizon)

108

boluntario
(75 emakume
eta 33 gizon)

24

pertsona
kontratatuta
(21 emakume
eta 3 gizon)

1399

1359 pertsona
eta 40 erakunde
bazkide
laguntzaile

96

57 erakunde
publiko eta sozial
eta 39 pribatu
laguntzaile



2024an, gure programek 4.500 pertsona baino gehiagori eman diete arreta. Gure immigrazio-programan parte hartu duten 2.950 pertsonak nabarmetzen dira, bai eta arloko ildoen bidez lagundu zaien prostituzio-egoeran dauden 606 pertsonak ere. Bereziki garrantzitsua da gizarte-laneko kontsultetan izandako % 43koigoera, guztira 1.341 pertsonari eman baitzaie arreta.

Krisi ugariak eta gero eta handiagoak diren desberdinkeriek markatutako testuinguru global, europar eta lokal batean, gure konpromisoa indartu dugu autonomia-erkidegoan eta nazioartean, migrazioaren, indarkerien eta gizarte eraldatzeko hezkuntzaren eremuan osasun komunitarioko programak garatuz.

2024ko TESTUINGURUA

2024an, gero eta konplexutasun handiagoa izan da maila globalean, Europan eta maila lokalean, eta horrek zuzenean eragin die bai gure erakundearen jarduketa-inguruneari, bai lan egiten dugun kolektiboari. Elkarri lotutako krisien hedapenak —ekonomikoa, ekologikoa, soziala, zainketakoa eta humanitarioa— desberdinkeriak eta kalteberatasuna sakondu ditu biztanleriaren sektore askotan, eta egokitzeko, erantzuteko eta eusteko ahalegin iraunkorra eskatu die gizarte-erakundeei.

Egoera horretan, gure erakundeak justizia sozialaren, ekitatearen, giza eskubideen eta zaintzaren aldeko konpromiso sendoarekin jarraitu du lanean. Bereziki, lurraldeko eta komunitateko lan-ildoak indartu dira, arreta berezia jarriz indarkeriaren aurkako borrokan —batez ere prostituzioaren eta pertsona-salerosketaren esparruetan—, migrazio-prozesuetan eta arrazismoaren aurkako eta tratu onen aldeko ikuspegia duen Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren sustapenean.

Ikuspegi zabalago batetik, polarizazio sozial eta politikoaren sendotze kezagarria ikusten dugu, arrazismoa, xenofobia, LGTBIfobia eta matxismoa sustatzen dituzten gorroto-diskurtsoekin batera. Bilakaera horren aurrean, ezinbestekoa da gizarte-erakundek eta herritar antolatuek eskubideen defentsan gizarte-

kohesioan eta giza duintasunean eragile aktibo gisa duten zeregina.

Munduko eskualde askotako bizi-baldintzak okertu egin dira, eta hala, besteak beste, **23 pertsonatik bat egoera oso kalteberan eta laguntza humanitarioaren mende dago.**

Ukrainako bezalako gerrak eta Israel-Palestina gatazkak egoera horretan lagundu dute, krisi moral globala agerian utziz. Adierazi den bezala, “bestearen” deshumanizazioak —indarkeria legitimatzen duen mekanismoa— bere horretan dirau gure gizarteetan. Axolagabekeria edo isiltasun sozialari esker gertatzen den deshumanizazio horrek bizitza asko “ikusezin” eta dolurik edo aitortzarik gabeko bihurtzea ahalbidetzen du.

Erantzun etiko eta politiko baten premia nagusitzen da. Ezin gara lekuko pasiboak izan, Blanca Garcések adierazi bezala, “bere mugetan” eta Gazan ere “hiltzen ari den” Europa baten aurrean. Erakunde sozial gisa dugun posiziotik, migratzaileei, arrazializatuei eta pobretuei gizatasuna ebasten dieten diskurtsoak desegiten eta justiziazko eta elkartasunezko narratibak eraikitzen laguntzeko erronka dugu.

EUSKAL TESTUINGURUA ETA EUSKADIKO HIRUGARREN SEKTORE SOZIALAREN ERRONKAK

Lurralde-mailan, Euskadin ere eraldaketa garrantzitsuei egin behar diegu aurre. Euskal testuinguruan aplikatutako Europako politikek ez dute lortu desberdinkeria sortzen duten faktoreetan modu estrukturalen eragitea. Horren ordez, suspertze-funtsek merkatuko logikak errepikatu dituzte, eta pertsonak eta bizitza erdigunean jartzen ez dituen eredu ekonomiko jasangaitz bat iraunarazi.

Munduko Medikuek eta Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala, beraz, erronka iraunkor eta konplexuen aurrean dago. Erakundeen jasangarritasunak —ekonomiko, sozial eta identitarioak— erronka nagusia izaten jarraitzen du. Lehentasunezko gaiak dira finantzaketa-iturriak dibertsifikatzeko, lan-taldeen egonkortasuna bermatzeko eta gizarte-oinarria indartzeko beharra. Gainera, eraldaketa digitala, berrikuntza soziala eta behar sozial berrietara egokitzea funtsezkoak dira

URTEAREN ANALISIA

sektorearen garrantzia eta eraginkortasuna ziurtatzeko.

Beste alderdi garrantzitsu bat erakunde horiek egiten duten lanaren aitoren soziala da. Funtsezkoa da ikusaraztea batez ere kolektibo kalteberenen bizi-kalitatea hobetzeari, kohesio sozialari eta eskubideak babesteari dagokienez sortzen duten inpaktua. Funtsezkoa da, halaber, herritarrekiko loturak indartzea eta EHSSk erakunde publikoen eta beste gizarte-eragile batzuen aurrean funtsezko solaskide gisa duen zeregina sendotzea.

Testuinguru horretan, sektorearen barruko eta kanpoko eragileekiko **lankidetzaharremanak** estrategikoak dira. Lankidetzaharreak, ikaskuntza partekatuko eremuak eta aliantza egonkorak sortzea beharrezko bidea da gero eta konplexutasun sozial eta politiko handiagoari aurre egiteko..

BEGIRADA KRITIKOA ETA PROPOSAMEN ERALDATZAILEA

Gure jarrerak zainketa-eredua sakon berrikustearen aldeko apustua egiten du, ulertuta garaia dela eremu hori eskubide unibertsal, kolektibo eta berezi gisa aitortzeko, eta arlo publikotik haren hornidura bermatzeko, logika komunitario eta merkantilizatu gabeko batekin. Horrek berekin dakar, halaber, gizarte-erakundeei eta komunitate-egiturari protagonismoa emango dieten gobernantza-ereduetan aurrera egitea, dinamika asistentzialista hutsetatik edo instituzionalizatuetatik aldentuz.

Ildo horretan, dei egiten diegu erakundeei jasangarritasunerantz, ekitaterantz eta zainketa zentraltasunerantz aurrera egingo duten egiturazko politika publikoak sortzera. 2024ko hauteskunde autonomiko eta europarrei begira, programa politikoetan kolektiboki eragitearen aldeko apustua egin dugu, justizia soziala, giza eskubideak eta zaintzaren ekonomia lehentasunezko ardatz gisa jartzeko.

GURE LANA

Gizarte-aldaketaren eragile garen aldetik, modu aktiboan inplikatzeko gara, gure esku-hartze guztien bidez, osasunerako eskubidea urratzen dituzten arau, politika eta jardura sozialak ezabatzeko helburuarekin.

Ildo horretatik, lanean jarraitzen dugu pertsona guztien osasunerako eskubide eraginkorra bermatzeko, eta bidegabekeriak eta desberdinkeriak eragiten dituzten gizarte-egiturak aldatzen laguntzeko. Zoritxarrez, badira oraindik osasunerako eskubidea aitortuta ez duten pertsonak. Beraz, haientzat ezinbestekoa da ematen dugun arreta soziosanitarioa.

Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren bidez herritarrak hezteko estrategiak gauzatzen ditugu, pertsonak eta subjektuak ahalduzera bideratutako pentsamendu kritiko batetik abiatuta, errealitatea eraldatzen laguntzeko gai izan daitezen.

Eskubideen urraketak ikusarazi eta agerian uzten dituzten ekintzen bidez egiten dugu hori, ikastetxeetako hezkuntza-eremu formalean zein gizarte zibilarekiko eremu informalean hezteko ekintzen bidez, bai eta sareko lanaren bitartez ere. Hala, eragin politikoko ekintzak eta herritarrak gizarte aldaketarantz mobilizatzeko ekintzak gauzatzen ditugu.

Nazioarteko lankidetzaprogramen bidez, bai hemen bai beste herrialde batzuetan bidegabekeriaren eta desberdinkeria sozialen ondorioei erantzun dieten ereduera heldu nahi dugu. Nazioarteko lankidetzapolitikak hobetzeak ez du arriskuan jartzen inolako gizarte-politkarik, ezta gure eskubide bakar bat ere. Eta politika horiek giza eskubideen urraketa hori eragiten duten egiturazko kausak identifikatu eta salatzea bideratu behar dira, eta, aldi berean, horiek desagerrarazteko alternatibak sustatu.

Gizarte-aldaketen eragile gisa betetzen dugun eginkizuna finkatzea dagokigu, eta gure misioaren helburua eta erakunde gisa beharrezkoa den barne-garapena orekaz moldatzea. Entzun behar dugu gure erakundeari zer eskatzen zaion, zertarako gauden gaur egungo testuinguruan, non gero eta argiago ikusten baita oinarriko eskubideei dagokienez okerrera egiten ari garela.



Munduko Medikuek Euskadiren ildo estrategikoen artean, aldaketa sozialak (politikoak, ekonomikoak edo kulturalak) lortzeko gizartea modu kolektiboan antolatzeko eta jarduteko prozesuak erraztearena nabarmentzen da. Herritarrek erabakiak hartzen eta etorkizun hobearen eraikitzen aktiboki parte har dezaten sustatuz, errealitatea eraldatzea eta justizia soziala sustatzea bilatuz.

Munduko Medikuek Euskadik mobilizazio sozialaren bidez sustatzen du ildo hori, zeinak arlo nagusi gisa honako hauek hartzen dituen: garapen asoziatiboa eta eraldaketa sozialerako hezkuntza.

GARAPEN ASOZIATIBOA


Munduko Medikuek Euskadik erakundearen jasangarritasuna bermatzen du arlo horretan, asoziazioa eta boluntariotzaren ibilbide politikoa sustatuz. Asoziatiaren eta boluntariotzaren ekintzak erakundearen duen zeharkakotasun egokiaren sustapena eta jarraipena egiten du, inplikazio eta aktibismo ikuspegi batekin.

Ekintza boluntarioa sustatzen dugu, gizartearen eta herritarren parte hartzea beharrezkoa baita eraldaketa soziala lortzeko, gaitasunak indartuz, esku-hartze sozialean parte-hartze aktiboa eta kalitatezkoa sustatuz, inpaktu emozionala kudeatzeko tresnak emanez eta boluntarioek aldaketarako eragile gisa duten konpromisoa bultzatuz.

Hori guztia, generoaren eta giza eskubideen ikuspegitik abiatuta, herritar kritikoaren eragin politikoa bultzatzen duten beste elkarte eta erakunde batzuekin sarean lan eginez eta digitalizazioaren bultzada aprobetxatuz komunikazio sozialerako tresna gisa.

2024an, ikus-entzunezko materialak diseinatu eta landu dira: [Boluntariotza, aldaketaren eragilea](#) kanpainarako, eta Munduko Medikuek [Begirada bakoitzak axola du](#) kanpaina babestu da.



 Munduko Medikuekako boluntarioak Euskal Encounterren, 2024an.

MOBILIZAZIO SOZIALA

Gure sentsibilizazio-ekintzak eta -jarduerak askotariko gaiei buruzkoak dira, eta Giza Eskubideei dagokienez herritar kritikoak sortzea sustatzea dute helburu, bereziki osasunerako eskubideari eta sexu- eta ugalketa-eskubideei dagokienez, ingurumenaren babesa barne, funtsezko elementua baita eskubide horiek bermatzeko.

2024an, aipatzekoa da etengabe jardun dugula lanean LGBTQ+ komunitatearen eta emakumeen aurkako indarkerien funtsezko adierazpenen sentsibilizazioan eta prebentzioan, hala nola honako adierazpen hauen inguruan:


Emakumeen Genitalen Mutilazioa

(EGM): prestakuntza eman diegu arlo soziosanitarioko profesionalei, baita tailerrak ere gizon eta emakume migratzaileei, bereziki EMGaren prebalentzia handia duten herrialdeetako, eta sentsibilizazio-jarduerak egin ditugu, *Nire Borroka*, gure borroka argazki-erakusketaren bitartez.

2024an *Gasteiz eta Senegal, indarkeria matxisten aurka elkarrekin proiektua* abiarazi da, urrats garrantzitsua gure sentsibilizazio- eta prebentzio-lanean. Gasteizko AEKren Arana euskaltegiarekin lankidetzan, esperientzia pilotu berritzaile bat gauzatzen ari gara, euskararen ikaskuntza berdintasunerako hezkuntzarekin lotzeko. Egin ditugun material pedagogikoek, hizkuntza irakasteko prozesua errazteaz gain, indarkeria matxisten prebentzioa sustatzen dute eta LGBTQ+ kolektiboaren errealitatea zeharka jorratzen dute, bai Gasteizen, bai Senegalen, testuinguru horietan dauden diskriminazio- eta indarkeria-moduak ikusaraziz.

[**Munduko Medikuaen Krisi Klimatikoaren Aurkako hiru bideo**](#)



 *Eraldaketa sozialerako antzerkia eta berdintasuna Langraiz Okan.*

SENTSIBILIZAZIOARI BURUZKO DATUAK ARABAN 2024

KRISI KLIMATIKOAREN INGURUKO HEZKUNTZA

Prestakuntza-saio **1** ikasgelan / **63** pertsona ikasleen aldetik / **8** pertsona irakasleen aldetik / krisi klimatikoari buruzko mikrodokumental **1** / **2** online modulu

LAGUNTZA HUMANITARIOA

IES Federico Baraibar (Gasteiz)

Boluntarioen lana

IES Badaya (Langraiz Oka)

Saharar errefuxiatuen kanpamentua / **81** pertsona ikasleen aldetik

EMAKUMEEN GENITALEN MUTILAZIOA

Helduen Hezkuntzako Ikastetxeak (Paulo Freire – Araba)

16 emakume 2 tailerretan trebatuta / **8** gizon 4 tailerretan trebatuta / **66** osasungintzako profesional 2 tailerretan / **8** nerabe sentsibilizatu eztabaida batean / **3** bilera maila politikoan / **3** bilera gizarte- eta hezkuntza-baliabideekin / **3** bilera Afrikako elkarteekin

SENTSIBILIZAZIOA

Pentsamendu kritikoa indartzera bideratutako prozesua da, aldaketa sozialarekin konprometitua eta arduratsua izango den gizarte zibil berri bat eraikitzeko. Horretarako, osasun globalerako eskubidearen urraketaz jabetutako pertsona ahaldunduak sustatu nahi ditugu, justiziaren, ekitatearen eta aniztasunaren ikuspegitik.

Hainbat dimentsiotatik heltzen diogu GEHri: hezkuntza-eremu formalean, informalean eta ez-formalean, eta sentsibilizazio eta eragin politikoko ekintzak ere egiten ditugu, metodologia eta pedagogia kritiko eta samurren bidez. Horiei esker, ikaskuntzak esanguratsuak eta baliotsuak izango dira eskubide, erantzukizun eta betebeharren titularrentzat, gizartea eraldatzen laguntzen duten subjektu protagonista diren aldetik. 2024an hainbat proiekturen bidez inplementatu genuen hori guztia:

GENDER II

Nerabezaroan eta gaztaroan (ziber)indarkeria matxisten aurrean tratu onak lantzeko hezkuntza-proposamena da. Aurten Bilboko Maristak hezkuntza-komunitatean gauzatu da bigarren fasea.

Hezkuntza-komunitateekin prozesu kritiko-afektiboak indartu nahi ditu, eta, horretarako, norberaren ezagutza bultzatzen du, eta harreman osasungarrien eta gizarte-partaidetzaren eta eragin politikoaren alde egiten du, genero-desberdinkerien, estereotipoen eta rolen aurrean, bereziki sare sozialen erabilera azpimarratuz eta berdintasunean oinarritutako eredu sozioafektiboak elikatuz, tokiko indarkeria

matxistari eta indarkeria matxista globalari aurre hartzeko helburuarekin.

MUGITZEN ARI DEN MUNDUA, ESKUBIDE-KONTUA

Proiektu honen helburua da ikastetxeetan migratzaileen kolektiboaren tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza sustatzen laguntzea, kulturartekotasuna sustatuz, aniztasuna onartuz eta migrazioarenganako eta errefuxiatzearenganako jarrera positiboak garatuz. Euskadiko unibertsitateko ikasleei eta Helduen Hezkuntzako Ikastetxeetako ikasleei zuzendutako tailerren bidez.

AFRIKAN MURGILTZEN

Bigarren Hezkuntzako komunitateekin Afrikari buruzko iruditeria berrikusteko hezkuntza-proposamena, kontinente horri begirada berri eta positiboa emateko, ikuspegi dekolonialetik, kontatu ez zaizkigun istorioak kontatuz eta erreferente historikoak eta garaikideak eskainiz. Bestalde, arrazakeria eta xenofobia bultzatzen dituzten aurreiritzien eta estereotipoen aurrean parte-hartze soziala sustatzen da. 2024an, Bilboko Maristak eta Solokoetxe BHI Bizkaiko ikastetxeetan eta Lakua BHI Arabako ikastetxean gauzatu zen, eta hainbat sentsibilizazio-jarduera ere antolatu ziren. Nabarmentzekoa izan zen Gasteizen egindako [Arrazakeriaren aurkako begirada bat hezkuntzan](#) mahai-ingurua.

Proiektu horiei buruzko informazio gehiago eta material didaktikoak, webgune honetan: www.semillaseducativas.org

GIZARTEAREN ERALDAKETARAKO HEZKUNTZA (GEH)

GIZARTEAREN ERALDAKETARAKO HEZKUNTZA

3

proposamen
bigarren mailako
hezkuntza-
komunitateentzat

396

pertsona
ikasleen
aldetik

30

pertsona
irakasleen
aldetik

88

ordezkari
IGEn
aldetik

5

erakusketa
publiko

2

jardunaldi
publiko



[1]



[2]



[3]



[4]




[5]



[6]



[7]

 [1] Solasaldia. Arrazakeriaren aurkako begirada bat. [2] Solasaldiaren kartela. Arrazakeriaren aurkako begirada bat. [3] Afrikan Murgiltzen erakusketa Getxon. [4] Urreta HLHI. Galdakao. [5] Lakua BHI Gazte Batzarra. [6] Solokoetxe BHI. [7] "Encuerpar la educación" tailerra gizarte- eta hezkuntza-profesionalekin.

Gizarte-inklusioren eremuaren helburua da egoera ahulean dauden pertsonen osasunerako eskubidea izatea. Ildo horretatik, gure lan-esparrua bi biztanletalde hauetan dago: gizarte-bazterketako egoeran dauden edo egoteko arriskuan dauden atzerritar jatorriko pertsonak eta eremu soziosanitarioan pertsonekin lan egiten duten profesionalak.

Immigrazioaren eremuan, Esku-hartze Komunitarioko, Gizarte Inklusioko eta Bizikidetzako programen bitartez, esku hartzeko zenbait ildo lantzen ditugu.

Alde batetik, **HARRERA**ren esparruan, atzerritarrek harrera-gizartean integratzea sustatzen dugu, arreta soziosanitarioko zentroaren (CASSIN), prestakuntza- eta informazio-guneen, laguntzaileen, banakako arretaren eta abarren bidez. Era berean, erantzukizunen titularrekin esku hartzen dugu, atzerriko biztanleenganako jarrerak eta pertzepzioak aldatzeko xedez.

Bigarrenik, **BIZIKIDETZA**ren esparrua lantzen dugu, bertako eta atzerriko herritarren arteko bizikidetzaz errazteko eta sustatzeko, kulturen arteko ezagutzan, ulermenean eta errespetuan oinarrituta, batez ere hezkuntzaren eremuan eta gazteen artean. Halaber, osasun komunitarioa hobetzeko ezagutzak eskuratzea sustatzen eta indartzen dugu, osasunaren mugatzaile sozialak landuz.

Era berean, **GENEROA**ren esparruaren alde egiten dugu, genero-berdintasunarenganako eta sexu-aniztasunarenganako errespetua sustatzeko. Ildo horretan, pertsona helduekin zein gazteekin lan egiten dugu, ekitatiboagoa izango den belaunaldi berri bat osatzeko, gizon eta emakumez osatutako talde mistoekin.

Beste lan-ildo bat **BERDINTASUNA ETA DISKRIMINAZIOAREN AURKAKO BORROKA** da, herritar atzerritarrenganako jarrera eta pertzepzio diskriminatzaileak murrizteko helburuarekin. Horretarako, hezkuntzaren arloko prestakuntza-jarduerak egiten dira gazteekin; elkar ezagutzeko jarduerak eta gizarte sentsibilizazioak, zurrumurruek eta estereotipoen gaiak hezkuntza-eremu formaletik eta informaletik abiatuta landuz eta erantzukizunen titularrekin lan egiteari utzi gabe.

PARTAIDETZAren esparrua ere lantzen dugu, zeinaren bitartez sustatu eta indartu nahi baita atzerritar jatorriko pertsonen elkarrekin bizitza asoziatiboa, bereziki emakume-elkarrekin, gizareratzeko eta inklusio-dinamikak sortzeko.

Azkenik, **GIB/HIES**aren prebentzioan lan egiten dugu, prestakuntza-tailerren bidez eta proba azkarrak eginez.

IMMIGRAZIOA

2950

Onuradun

4941

Esku-hartze

3950

Esku-hartze ordu

852

Pertsona artatuta kontsulta medikoan

1341

Pertsona artatuta gizarte-laneko kontsultan

1508

Arreta, informazioan, orientazioan eta babesean

225

Urraketa, osasunerako sarbideari dagokionez

135

Akonpainamendu, osasunerako eskubidearen urraketan

289

Prestakuntza-jarduera

70

Nazionalitate

17

Tailer profesionalak

105

Pertsona prestatuta esparru soziosanitarioan

43

Pertsona prestatuta migratzaileen elkarrekin

GIZARTE-INKLUSIOA



- [1] 2024ko Immigrazio Programaren bideoa. [2] Etorkeinenzako Arreta Soziosanitarioko Zentroa (CASSIN). [3] Mendira txangoa. [4] Azoka Solidarioa Barakaldon. [5] Lehen sorospenen tailerra. Barakaldo. [6] Zaintzen duten pertsonentzako zaintzen tailerra. [7] M8ko manifestazioa. [8] Arrazakeriaren aurkako jardunaldia: Arrazakeriak historizatuz II.

Munduko Medikuak elkartearen 2022an hasitako bidea sendotzen ari gara, eta ahultasun-egoeran dauden pertsonen osasunerako sarbidea eraginkorra izan dadin lanean jarraitzen dugu. Sarean lan egiten dugu, kolektibo, elkarte eta profesional soziosanitarioekin, gizarte-bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen osasunerako eskubidea bermatzeko.

GIZARTE-INKLUSIOAren eremuan herritarren parte-hartzea sustatzea eta arabarrentzat eta atzerritar jatorriko pertsonentzat, bereziki emakumeentzat, lankidetzagune gisa eratzeko lortu nahi da, eta, bide horretatik, lan handia egin dugu boluntario aktibo eta konprometituen talde bat fidelizatuz eta sendotuz.

HARRERAren esparruan, atzerritarrak harrera-gizartearen integratzea sustatzen dugu, arreta soziosanitarioko zentroaren (CASSIN), prestakuntza- eta informazio-guneen, laguntzaileen, banakako arretaren eta abarren bidez. Era berean, osasuna bultzatzen dugu komunitatearen ezagutzak eta osasuna hobetuko dituzten tailerren eta ikastaroen bitartez, eta osasunaren faktore sozialak lantzen ditugu.

Era berean, **GENERO-BERDINTASUNA** esparruaren alde egiten dugu, eta emakumeen kontrako indarkeriaren prebentzioaren alde, bereziki emakumeen mutilazio genitala desagerraraz dadin. Ildo horretan, herritarrekin –oro har– eta mutilazio genitala egiten den herrialdeetatik datozen pertsonekin lan egiten dugu, bai eta osasunaren eta hezkuntzaren arloko langileekin ere.

Beste lan ildo bat **GIZARTEAREN ERALDAKETARAKO HEZKUNTZA** da, eta, hortik, pentsamendu kritikoa sortzea lortu nahi dugu, herritartasun aktibo eta solidarioa eraikitzeko asmoz, hau da, giza garapen jasangarri baterantz eraldatzeko kontzientzia kritikoa eta eraikitzailea izango duen gizarte. Zehazki, atzerritar jatorriko biztanleenganako diskriminazioaren aurkako borroka lantzen dugu hezkuntza formaleko eta ez-formaleko guneetan.

Osasunerako sarbidea Euskadin



 Boluntarioratza-azoka. Araba.

INKLUSIOA ARABAN

- 110** Pertsona artatuta kontsulta medikoetan
- 140** Pertsona artatuta gizarte-laneko kontsultan
- 77** Parte-hartzaile osasuna sustatzeko 7 ikastarotan
- 66** Profesional prestatuta esparru soziosanitarioan eta migratzaileen elkarteetan, 2 tailerretan
- 5** Emakume parte-hartzaile "Eremu segurua" ahduntze-tailerrean
- 12** Emakume eta aldaketa-agente prestatuta gorroto-delituen eta -diskurtsoen inguruan

ARABA

**MUNDUKO MEDIKUAK
ELKARTEAREN
EGOITZA BERRIA 2022.
URTEAZ GEROZTIK**



 [1] Eremu Seguruko emakumeen ahalduz-aldaren pintura. [2] Arrazakeriari, gorroto-delituei eta eragin psikologikoari buruzko tailerrak. [3] EMGari buruzko tailerra gizonentzat. HHI, Ariznabarra. [4] EMGari buruzko lanbide-prestakuntza.

2024an, Munduko Medikak Euskadik **prostituzio-egoeran dauden emakumeentzako Gizarteratze eta Laneratze Plana** gauzatzen jarraitu du. Plan honek, hiru programaren bidez, honako hauek bilatzen ditu:

1. **Emakumeak bai banan-banan bai gizartean erabat osatzea**, prostituzioak eragiten dituen kalteak eta ondorioak gainditzeko.
2. **Enplegu egonkorra eta lan-baldintza duinak** bermatzea.
3. **Salerosketaren eta esplotazioaren biktima diren haur eta nerabeei** tutoretzapeko zentroetan **laguntza** eskaintzea, haien **osatze fisikoa, psikologikoa eta erreproduktiboa** sustatuz.

Gure ikuspegiak hainbat esku-hartze biltzen ditu, alderdi sozial, psikologiko, juridiko eta laboraletan laguntza integrala emateko helburuarekin. 2024an **606 emakumeri eman zitzaizen arreta**, eta hainbat arlotan jaso zuten laguntza.



 Gizarteratzeko eta laneratze ahalduntze-tailerra.

Prostituzio-jarduera dagoen lekuetara astero egiten diren ibilbideetan, talde teknikoak **10 klub eta 33 pisu** bisitatu zituen, eta prebentzio-materiala banatu eta programaren baliabideak ezagutarazi zituen.

GIZARTE-ARRETA ETA-LAGUNTZA

Taldeak **koordinazio instituzionalak** egin zituen zenbait administrazio eta gizarte-erakunderekin, eta nabarmena izan zen gizarte-zerbitzu publikoekiko eta ostatu hartzeko baliabideekiko elkarreragina.

Informazioa, orientazioa eta aholkularitza

eman ziren funtsezko gaiei dagokienez, hala nola gizarte-laguntzei, prestazio ekonomikoei eta eskura zeuden baliabideei dagokienez, eta 187 emakume artatu ziren esparru horretan.

ARRETA PSIKOLOGIKOA ETA PSIKOSOZIALA

242 emakume artatu ziren esku-hartze psikosozialean, ikuspegi sendoarekin, osasun mentalaren, emozionalaren eta ahalduntzeko eta autoestimua indartzeko eremuan. Esparru horretan egindako arreta-saioen kopuru handiak erakusten du zein garrantzizkoa den eskubideen titular horiek aurre egin behar dieten traumei eta zailtasun emozionalari heltzea.

Esku-hartze aipagarrienen artean daude emozioei eustea eta entzute aktiboa, funtsezkoak baitira emakumei berehalako euskarri jarraitua emateko. Gainera, **41 emakume** artatu ziren **banakako terapian**, eta 296 esku-hartze egin ziren **ahalduntzean eta autoestimua indartzean** oinarrituta. Alderdi horiek funtsezkoak dira artatutako emakumeen erresilientzia eta ongizate orokorra hobetzeko.

Osasun mentalean eta baliabide espezializatuekin koordinazioan oinarritutako diziplinarteko esku-hartzeak egin ziren, emakumeak oneratzeko erabateko arreta bermatuz. Krisialdiko esku-hartzeak eta osasun mentaleko psikohezkuntza funtsezkoak izan ziren larrialdi emozionalak kudeatzeko eta emakumeak egoeren gobernuari dagokionez ahalduntzeko.

PROSTITUZIOA ETA PERTSONEN SALEROSKETA

PROSTITUZIO-EGOERAN DAUDEN EMAKUMEENTZAKO ARRETA INTEGRALA MUNDUKO MEDIKUAK ELKARTEAREN PROGRAMA BERRIA 2023. URTEAZ GEROZTIK

606 Emakume prostituzio-egoeran artatu dira / **461** Emakume, hezkuntza- eta osasun-arloko esku-hartzeekin / **187** Emakume esku-hartze sozialekin / **242** Emakume artatu dira esku-hartze psikosozialean / **318** Pertsona esku-hartze juridikoarekin / **46** Emakume prostituzio egoeran, laneratzeko prozesuan / **19** Emakume prestakuntza teknikoak egiten / **10** Prostituzio-klub, zeinak ohiko moduan bisitatzen diren / **33** Prostituzio-pisu, zeinak erregulartasunez bisitatzen diren / **20** Adingabe prestatu dira haurren eta nerabeen sexu-esplotazioa prebenitzeko / **106** Profesional trebatu dira haurren eta nerabeen sexu-esplotazioan

ARRETA JURIDIKOA

Lege-arloan, **40 emakumeri aholkularitza eta laguntza juridikoa** eman diegu funtsezko gaitetan, hala nola errotze-egoeretan, egoitza-baimenetan eta nazioarteko babesean. Emakume horietako gehienak egoera administratibo irregularrean zeuden, eta, hortaz, funtsezkoa da beren estatusa araupetzea, legez dagozkien eskubideez baliu daitezen. **16 emakumek aholkularitza juridikoa jaso zuten genero-indarkeriaren arloan**, informazioa jasotzeko, dagokion dokumentazioa prestatzeko eta eskaerarekin lotutako izapideak kudeatzeko, eta **6 esku-hartze egin ziren sexu-esplotaziorako salerosketaren biktimen akreditazioari buruzko informazioa emateko**.

LAN-ARLOKO LAGUNTZA ETA ORIENTAZIOA

2024an, **laneratze aurreko 4 prestakuntza-talde** osatu ziren, **eta 34 emakumek parte hartu zuten** lan-, psikologia- eta-ahalduntze saioetan, besteak beste, curriculum egiten, enplegu-atarietan aktiboki bilatzen eta izena ematen, lan-elkarrizketak gairatuzko tresnak eta enplegua mantentzeko jarraibideak eskuratzen ikasteko. **Tituluaren homologazioa** ere funtsezkoa izan da erabiltzaileen laneratze-prozesua garatzeko.

